



EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA  
—  
INSTITUT CULTUREL  
BASQUE



LITTORAL BASQUE  
EUSKAL ITSASBAZTERRA



# HAUTAGAITZA DEIALDIA

## Euskal idazle egonaldia

### 2026ko udazkena

Hamaseigarren urtez segidan, Euskal kultur erakundeak, CPIE Euskal Itsasbazterrak eta Euskal Idazleen Elkartek (EIE), euskarazko literatura sorkuntza egonaldi bat proposatzen dute hilabete batez Abbadia Eremuko *Nekatoenean*. Horrez gain, bigarren hilabeteko egonaldia eskaintzen da Pasai Donibaneko *Hugoenean*.

#### EKOIZPENA ETA BALORIZAZIOA

Egitasmoak lau ardatz ditu:

1 – **Euskarazko literatura sorkuntza, Euskal Herriko ondare naturala edota kulturala testuinguru gisa hartuta.** Literatura formaren hautua libre uzten da (ipuin, eleberri laburra, poesia, komikia, antzerkia, bertsoa, alegia, erran zaharra, kantua...).

Oharra: Haur eta gazteei zuzendu proposamenak begi onez ikusiak dira.

2 – **Topaketa bat publikoarekin egonaldi denboran,** Hendaian, idazleak bere ibilbidea eta gogoeta aurkez ditzan.

3 – **Aurkezpen publiko bat egonaldiaren ondotik,** Pasai Donibanen, idazleak bere sorkuntza aurkez dezan.

4 – **Idatzitako lanaren balorazio posible bat.**

#### BALDINTZAK

**Tokiak:** Nekatoenea – Abbadiako Eremua – Hendaia  
Hugoenea – Pasai Donibane – Pasaia

**Datak/iraupena:** bi hilabete, 2026ko irailan Hendaian 4 astez, eta urria eta abendua artean Pasai Donibanen 4 astez (datak idazlearekin zehaztuko dira).

**Dirulaguntza:** 1 500 € / hilabeteka = 3 000 € guztira (zerga guziak barne)

**Idazlearen esku utziko dira:**

- Duplex moduko bizitegi bat, Abbadia Eremuaren erdi-erdian kokatua den *Nekatoenea* etxean, sorkuntza eremu bat duena (36m<sup>2</sup>ko ekipamendurik gabeko ateleria) // Bizitegi bat, Pasai Donibaneko auzoaren erdi-erdian kokatua den *Hugoenea* etxean.
- Internet konexioa bi bizitegietan.
- Ur, elektrikak eta wifi gastuak, Hendaia eta Pasaiako Herriko Etxeek ordaintzen dituzte.
- Idazlea ez bada Euskal Idazleen Elkarteko kide, harpidetza eskainiko zaio urte batentzat.

**Idazlearen gain diren gastuak:**

- Informatika materiala ez da furnitua.
- Eguneroko biziari doazkion gastuak (egonaldiaren denborako janaria, garraioak...).

**Idazlearen betebeharrak:**

- Idazleak derrigorrez erantzukizun zibilaren eta alokairuaren asegurantzak hartu beharko ditu bere egonaldiaren denborako Hendaian. Frogagiri bat erantsi beharko zaio errezibitze hitzarmenari. Bizitegia eta sorkuntza tokia babestua den natura eremuaren erdi-erdian kokatuak izanik, artistak beharko du eremuaren araudia zorrozki errespetatu (autoak, bizikletak, zakurrak eta landareen bilketa debekatuak dira).
- Egileak fakturak egiteko gai izan beharko da hilabetesaria jasotzeko egoera juridiko eta administratiboa justifikatzeko, eta horrela bere esku hartzearekin lotutako betebeharrak sozial eta fiskal guztiak errespetatzeko.

## HAUTAGAITZEN AURKEZPENA


**Beharrezko dokumentuak:**

- Erantsitako formularioa osatua
- Eramanak izan diren lanak zehazten dituen CV-a
- Ibilbidea zehazten duen motibazio gutun bat
- Egonaldi egitasmoaren aurkezpen bat : orri bat guttienik eta lau orri gehieniko luzetasuna duen intentzio nota bat, jadanik idatzia den lagin batekin osatu daitekeena

>> Hautagaitzak aurkezteko epea: **2026ko ekainaren 12a berantenez** : [jfrahier@cpie-hendaye.fr](mailto:jfrahier@cpie-hendaye.fr)

## HAUTAKETA MOLDEA

Partaide diren hiru egituretako ordezkari banaz osatu epaimahai batek hautaketa egingen du aurkeztuak izanen diren egitasmoen artean.



*Nekatoenea* – Abbadia eremua - Hendaia © J. Larre // *Hugoenea* – Pasai Donibane – Pasaia © EIE

## PARTAIDEAK

**CPIE Euskal Itsasbazterra** ingurumenaren, artearen eta kulturaren heziketaren inguruan ari den elkarte bat da, 1986tik hona lurraldean ongi errotua dagoena. Deneri irekia da eta balore batzuk defendatzen ditu, hala nola elkartasuna, kultura eta hizkuntza ezberdintasunen errespetua, autonomia, herritarren erantzunkizuna ingurumenaren babesan aktiboki parte hartuz, ongi izate soziala eta gure lurraldearen garapen iraunkorra. Badu 20 urte pasa Hendaiaiko Abbadia eremuan kokatua den *Nekatoenea* etxe berriak artista egonaldiak errezibitzen dituela.

[www.cpie-littoral-basque.eu](http://www.cpie-littoral-basque.eu)

**Euskal kultur erakundearen** misio nagusia euskal kulturaren garapena eta hedadura sostengatzea da. 1990ean sortu zenetik, Uztaritzen kokatua da. Euskal kulturaren babesteko, transmititzeko eta hedatzeko lanean ari da, sorkuntza sustatzen duen ber. Bere barne araudiekin bat eginez lehentasuna ematen dio euskaraz ekoizten eta bizi den kulturari.

[www.eke.eus](http://www.eke.eus)

**Euskal Idazleen Elkarte**a 1982an sortutako irabazi asmorik gabeko elkarte da, euskal idazleen eskubide profesional eta moralak defenditzeko asmoz egituratua. 380tik gora bazkide ditu gaur egun, eta horrez gain, beste hauek ere badira bere xedeak: euskal literatura zabaltzea Euskal Herrian nahiz atzerrian, idazlearen lanaren proiektio soziala bideratzea eta euskalgintzaren eragile aktiboa izatea.

[www.idazleak.eus](http://www.idazleak.eus)

## HAUTAGAITZA AURKEZTEKO BETE BEHAR DEN FORMULARIOA

DEITURA(K) - IZENA

.....

SORTEGUNA

.....

HELBIDEA

.....

.....

IMEILA

.....

TEL

.....

EGOERA

- Idazlea
- Marrazkilaria
- Beste:.....

Idazkera (edo marrazkigintza) zure ogibidea ote da?

.....

.....

.....

Zein da zure ogibidea?

.....

.....

EIEko kide zara?

BAI

EZ